

U

Ubula

Ik. AHO-GINGILA

Ubularra

Ik. AHO-GINGILEZKOA

UHLENBECK, Christianus Cornelius

La Haya inguruko Woorburg-en 1866-an jaio zen hizkuntzalari hau.

Gaztetatik agertu zuen euskara ikertu nahia, baina, eragozpen bat zela medio ezin egin izan zuen euskarari buruzko doktoradutza-tesia.

Amerikako indioen hizkuntzen azterlari honek euskara ikertzeko ere denbora hartu zuen. Lan hauek *RIEV*-en eta *Eusko-Jakintza*-n argitaratu ziren frantse-sera eta espainierara itzuliak; euskal fonetika, eratorpenean erabiltzen diren atzikiak, euskarak beste hizkuntzekin izan ditzakeen harremanak (indoeuroparrarekin, Afrikako Ipar aldeko hizkuntzekin, Kaukasoko hizkuntzekin), euskararen jatorria etab. bere iker-lanetan sartu ziren.

Ohorezko euskaltzain eta beste Akademi askotako akademikide edo laguntzaile, 1950ean Lugano-Ruviglian (Suis-tzan) hil zen.

Ukapena

negación / négation / negation

Oinarritzko perpausaren (→enuntziaziozko edo →deklaratzailearen, →galdetzailearen nahiz →aginduzkoaren) →modu bat da ukapena, perpauseko →predikatua ukatzean datzana. *Enekok ez du dirurik* ukapena da; perpaus hau deklaratu ezezkoa da. *Enekok ez du dirurik?*, ukapena da; ezezko galde-perpaua da. *Ez esan, gero, horrelakorik* ukapena da; aginduzko perpaus ezez-tailea da.

Ulgarritasuna

comprensibilidad / compréhension / intelligibility

Ulgarritasuna esaten zaio erabat garbi entzun eta erraz uler daitekeen →berbaldi baten egoerari.

Umlaut

umlaut / umlaut / umlaut

→Bokal-→inflexioaren →sinonimoa.

Unibertsalak

Ezer baino lehen, oinarritzko eta itxurazko unibertsalen arteko diferentzia egin behar da. Lehenengoei buruz hau esan daiteke: hizkuntzetan aurkitzen diren edukin batzuk elementutegi orokor bate-tatik hartuak direla. Bide honetatik, esate baterako, →Jakobson, →Chomsky eta Halle-ren teorien dauden →ezaugarri →bereizleak eta berauen arteko harremanak, oinarritzko unibertsaltzat jotzen dira; eta hizkuntza konkretuetan beti ere kide akustiko eta artikulatzaile bana dutela ematen: hizkuntza bakoitzak, hitz batez, →alfabeto orokorrezko azpimultzo bat hautatzen du.

Fonologi unibertsal horiek gizakume-aren ahoskuntz eta entzumen organoek mugaturik dauden bezala, giza pentsa-menaren eta pertzepzioaren egiturak ere bide beretik semantikazko oinarri-unibertsalak funtza ditzaketela kontsidera daiteke. Hori dela bide, «arrezko», «emezko», «materiazko» eta abar kontzeptuak, elementutegi orokor horretako parte dira kontsideratzen da. Honek ez du behartzen egitura lexikal guztiak berdina izatera (alegia, sema horiek hizkuntza guztietan modu berean elkartzera eta, hizkuntzalaritza estrukturalaren hizkeraz esateko, semema berberak sortzera); ezta, beraz, hizkuntza batetik besterako itzulpen zehatza posible izateko. →Hiztun-talde baten hitzezko kontzeptuak ez dira izari orokorrari datzekion baldintza biologiko eta sozialen menpeko, baizik-eta haren jakintzaz, produkzio-moduez eta abar, →sintaxiaren alorrean uste denez, zenbait →kategoria lexikal unibertsal horietakoak dira (NP, VP, esate baterako); baina egiazko →hizketaren azterketa bidez zail froga daiteke horrelakorik.

Oinarritzko unibertsalak hizkuntzen deskribapenetan erabili den hiztegiari badagozkio ere («ezaugarri semantiko», «ezaugarri fonologiko», «NP», «VP», eta abar), itxurazkoek gramatiketan eman ohi diren →erregelak eta hauen arteko

harremanak dituzte gogotan; hau da, deskribapen-sistemetan egin daitezkeen egiturak. →Fonologiaren alorrean, esate baterako, ezaugarri bereizleak, hauek katea fonikoen ezagupideari buruzko matrise-lekugoneak diren aldetik. Sintaxiarenean, berriz, →transformazioen izana eta moldea, erregela sortzaileen erabilpen ziklikoa...

Hitz batez, mintzaira guztien ezaugarri formal eta abstraktuak dira (hiztegiaren kategori zatiketa; perpausen, →hitzen, sintaxi-eragiketen izana...); eta beren →baliokidetasuna aurkitu behar dute grammatikan, alegia, teoria beraren moldean bertan.

Hona hemen ideia nagusi orokor bat: semantikazko eta ezagupidezko egiturak, hierarkidunak direla eta denboragabeak; fonologikoeak, aldiz, denboratasunezko izaria badute (igarokortasun-hatsarrea). Hizkuntzaren ikaskuntzaren gertabidean barrena, era berean, unibertsalak aurkitu dira.

Nolanahi ere, onuragarriagoa da baldintzazko unibertsalen formulazioa, (alegia, A baldin badago, B dago), →ezaugarri →erkideen izanari buruzko erizpide boro-bilak ematea baino.

Alde honetatik, Greenberg-en lanak aipatu dira oso bereziki (1963 = Language Universals; 1966, Universals of Language; eta abar).

Txillardegia

Urkaria

líquido / liquide / liquid

Aintzinateko gramatikariengandik hartu den *urkari* izena, aho-bidearen herstea eta →irekidura konbinatzen duten →kontsonantei ematen zaie; →aldekarien kasuan batera gertatzen dira herstea eta irekidura, →dardarkarien kasuan, aldiz, elkarren segidan. →Bokalenetik hurbil dagoen ozentasun-gradu batengatik ezaugarritzen dira kontsonante hauek eta, egitez, bokalen →ezaugarriak aurkezten ditu berorien espektro akustikoak, →formante-egitura aski garbi batez. →Akustikari dagokionez, urkariak kontsonanteak eta →bokalezkoak dira batera. Bi urkari-moten arteko berezketa noizean behingoa da eta ezegonkorra. Mendebaldekoak kenduta, hizkuntza gutxiak berezten dute [r] eta [l]-ren artean. Ekialde Urruneko hizkuntza handiek, txinerak eta japonierak adibidez, ez

dute ezagutzen berezketa hori. Hizkuntza hauetan ez dago fonema urkari bat baizik, →textuinguruaren arabera dardarkari nahiz aldekeri bezala gauzatzen dena. R. →Jakobson-ek dioenez, azkenetakoa da haurrek bereganatzen dituzten berezketen artean. →Fonetika diakronikoan ere agerian gelditzen da bi urkari-moten arteko berezketaren ezegonkortasuna: [r]-[l] nahasketaren adibide franko dago iberorromantzearen eta talde italikoaren garapenean. Euskaraz ere gertatzen da horrelakorik: *elizara(t)* / *elizala*, edo *garesti* / *galesti* adibidez.

URKIXO, Julio

Deustun (Bilbon) jaio zen 1871an jatorri oneko famili batean. Deustun bertan hasitako ikasketak Salamanca-n bukatu zituen Zuzenbidean lizentziatuaz.

Politikoa, bi bider diputatua Madril-eko Gorteetan, liburuzale aparta eta euskal kulturak izan duen suspertzaile handienetariko bat dugu.

Liburuzale bezala, bere liburutegian euskaraz argitaratu den ia guztia biltzea lortu zuen; gero liburutegi hau Diputazioak erosi zuen.

Liburu-bilaketa honetan aipagarriak dira Zarauzko frantzizkotarren komentuan aurkitu zituenak: galdutzat jotzen ziren Joanes Etxeberriren idazlanak. Bazekien aurkikuntzak besterenganatzen eta argitara eman zituen hain eskuragaitzak ziren Etxepare, Axular, Oihenart eta abarren idazlanak.

Nahiz eta berak oso gutxi idatzi euskaraz, euskal kulturaren sustatzaile dugu; zentzu honetan ekintzarik garrantzikoena *Revista Internacional de Estudios Vascos* sortzea da.

1907an sortu zuen aldizkari honen zuzendari izan zen 1936an hura desagertu zen arte. 1922rarte bera izan zen aldizkariaren jabe ere; urte horretan Eusko Ikaskuntzak hartu zuen haren jabetza.

Urkixok aldizkari honekin zehaztasuna eta zorrotzasuna ekarri zuen euskal estudiantara; bertan parte hartzeko baldintza lanak kalitate zientifikokoak izatea zen.

→Euskaltzaindia sortu zenetik, 1918an, euskaltzain, Espainiako Hizkuntz eta Histori Akademietako kide izan zen euskal estudioen bultzatzaile hau 1950ean Donostian hil zen.